

ek!

eta kitto!
euskara elkarte

2024ko martxoak 8 · 1304 zenbakia



Z A I N T Z A K DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN

2MÓ 99€

erreflexuen aurkako
betaurreko graduatuak

Kontsumitzaile optikan kanpainaren ezugarriak.



8.05.19/20

MULTIÓPTICAS

943 20 05 22

Bidebarrieta, 2. EIBAR



eskatu hitzordua
WhatsApp bidez

www.multiopticas.com





osasun gida

Dentistak

**Odontologia
Biologikoa**

Miren Albistegi Sojo

Errebal, 14 - 1. B 678 48 57 52
malbistegi@gmail.com



**P. Echeverria
A. Esnaola**

Hortz Klinika Clínica dental
Fermín Calbetón 19-3 ezk. EIBAR
943 20 72 17 680 423 808
@pyadent

**MIGUEL SEMINARIO
ZURIARRAIN ODONTOLOGOA**

Odontologia orokorra
Ortodontzia
Implanteak

Bidebarrieta, 7-1. esk. 843-702886

arat.
HORTZ KLINIKA - CLINICA DENTAL

**ZURE
IRIBARRE
ONENA**

Tonibio Etxebarria Kalea, 4
20600 Eibar
943 201 851
www.aratklinika.com



EIBAR HORTZ KLINIKA
CLINICA DENTAL

Maitane G. Iñiguez
Odontologian Lizentziatua
APS 2018

San Agustín Kalea, 4 (Eibar)
943 537 076 - 688 884 808
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com



Unzaga Plaza

Hortz Klinika - Clínica Dental

M. Orozco Ventura doktorea
Unzaga plaza 5, 4º I, Eibar
Tel.: 943 70 23 85

Fisioterapeutak



ANE MENDIA

979 kolegiatu ikia.

- INDIRATERAPIA
- KIBOL LESIOAK
- Puntziozko tratamenduak
- K-Stretch + HIPOTERMIAK

**FISIOTERAPIA
ZENTRUA**

ARRAGUETA, 20
TEL: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com



Esku onetan egotearen
ziurtasuna.

20.000ko gaur eguneko gaiturik,
Eibarriko gaiturik ez dago.



bista eder
clínica dental - hortz klinika

Deitu | 943 70 00 82

bista eder, 19
www.bistaeder.es

**GASTESI
Hortz-Klinika**

Errebal, 9-1. C 943 70 00 90 / 688 68 96 02

Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Implanteak / Laser Teknologia



IRAZABAL
clínica dental

**Irribarreetan adituak
ESPEZIALITATE GUZTIAK**

Julian Etxebarria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

Ginekologia

Dra. Laura
Martinez



Dr. Alejandro
Recas

**GINECOLOGÍA
EIBAR**

- Ginekologia
- Obstetrizia
- Ekografia 3D / 4D

Tel: 659 56 13 65 San Juan, 5 - 2. D
dr.recas@gmail.com

dra.martinezgallardo@gmail.com

www.ginecologiaeibar.com



943-206776

Jarraitu gaitzazu!



@etakitto



Mikel Lizarralde Saalda aurkeztu digu, su txikian maitasun handiz egositako proiektu solidarioa.

etakitto.eus



ARGITARATZAILA

...eta kitto! Euskara Elkartea

HELBIDEA

Urkizu, 11 · 20600 Eibar

TELEFONOAK

943 20 67 76 / 943 20 09 18

603 598 285

FAXA 943 20 28 72

ASTEKARIAREN E-MAILAK

erredakzioa@etakitto.eus

komunikabideak@etakitto.eus

publizitatea@etakitto.eus

ELKARTEAREN E-MAILAK

elkartea@etakitto.eus

normalizazioa@etakitto.eus

ERREDAKZIO-KONTSEILUA

Ana Aizpurua, Ekhi Belar, Jose

Luis Gorostegi, Silbia Hernandez

eta Yanire Sagredo

ADMINISTRAZIOA

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILA

Ana Aizpurua

ERREDAKZIO-BURUA

Silbia Hernandez

DISEINUA

Maku Oruezabal

MAKETAZIOA

...eta kitto! astekaria

HIZKUNTZA ARDURA

Maider Aranberri

PUBLIZITATEA

Belen Ulazia

TELEFONOA

943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIA

Esther Galarza

BANAKETA-ARDURA

Idoia Labado

TIRADA

7.800 ale

INPRIMATEGIA

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA

SS/430/92. ISSN: 1132 - 1679



("...eta kitto!" k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Eibarko Udalak eta
Gipuzkoako Foru Aldundiak
lagundutako aldizkaria



EIBARKO UDALA



Gipuzkoako Foru Aldundia

Eskutitzak



Gure delegatu batek jasotako tratua salatzen

Eibarko LABetik publikoki salatu nahi dugu gure delegatu batek jasotako tratua osasungintza publikoaren eskutik, eta orokorrean ildo horretatik azken bolada luzean langileak jasaten ari diren baldintza prekario eta tratu eskasak. Azken kasu honetan lanera bidaltzen zaio langileari hiru saihests-hezur hautsita dituela; Osakidetza ez da berataz arduratzen hilabete luzez eta ez dakite zein egoeratan bidaltzen duten lanera, sei hilabetez probarik egiten ez diotelako. Horren ondorioz, medikuntza pribatura joan behar du hiru saihests-hezur apurtuta dituela baieztatzeko, eta baja errekurritu ahal izateko.

Istorioa honakoa da: 2023ko otsailean lehen aldiz baja hartu zuen, baina lanean jarraitu zuen, ekainera arte ezin izan baitzioten probarik egin. Ekainean egin zioten lehen proba, eta bi saihests-hezur hautsita zituen; momentu horretan eman zioten baja.

Urte bereko abuztuan saihests bat gehiago hautsi zitzaion, guztira hiru saihests hautsita zituela, eta hilabete horretan ezan beste proba bat egin zitzaion. Hurrengo hilabetetan ez du inolako berririk izango, eta ez diote proba berririk egingo.

2024ko urtarrilean, abuztutik probarik egin gabe zegoelarik, alta eman zioten. Gainera, esaten zaio ez diotela proba gehiagorik egingo, eta alta berehalakoa dela. Gure ordezkariak, oraindik oso minduta aurkitzen zelarik, eta bere lana normaltasunez egin ezinik, proba pribatu batzuk egitea erabaki zuen, eta proba horiek bere poltsikotik ordaintzea. Aste batzuk geroago proba horien erantzuna jaso zuen eta, noski, hiru saihestsak hautsita jarraitzen zutela agertzen zen informean. Berehala egin genuen altaren erreklamazioa, errekurrituz, eta arrazoia eman digute.

Onartezina iruditzen zaigu langileen osasunarekin horrela jolastea, eta baliabide gehiago eta kasu horien gaineko kontrola eskatzen dugu. Garbi dugu honelako kasuak azken urte luzean Osakidetza jasaten ari den kudeaketa eredu tamalgarriaren ondorio zuzena direla, eta pribatizazioarantz egiten ari den bidearen erakusgarri bat gehiago.

Eibarko LAB

Hortik esanak



Ohiko gizarte patriarkaletan emakumeek eurek jarduten dute beste emakumeen kontra. Horrela, amaginarrebek erraiekin neurritz gainezko eta kontrolatzaile joerak erabiltzen dituzte, eurak ere bere sasoiari jaso zituzten berberak, modu horretan ahal duten botere-iturri bakanetakoa erabiliz: `Hau jasango dut errain bezala, gero amaginarreba bezala botere hori izango dudalako`. Mundu guztiari interesatzen zaio estatusa izatea, eta hor dago boterearen desorekak hainbeste irautearen zergatiaren gakoa.

ANGELA SAINI, dibulgetzaile zientifikoa

Gaur egungo pornoaren %99 emakumezkoek egiten dute. Orain ez dago emakume-objekturik, gizon-objekturik baizik. Horrek ez du esan nahi porno erromantiko batez dihardugunik. Gertatzen dena da mundu horrek orain interes handiagoa pizten duela emakumeengan, aktore izatetik aparte, produktore eta zuzendari izatera animatzen direlako. Nire hasieretan beldur nintzen, jendeak hor zer egiten nuen galdetzen zidalako. Nire ama izan zen lagundu ninduen bakarra: `Sartu eta larrua jo munduari` esan zidan.

ROCCO SIFREDI, aktore pornoa

Diskoa aurkezten duzularik, beste errealtate batean sartzen zara, elkarrizketak egiten dizkizute, baina musikariaren egoera tamalgarria dela esatea gutxi esatea da. Mundu errealean inongo muntarik gabeko atal bat osatzen dugu musikariok. Jendeak ikusi nahi du eszenatokian zernahi, hau da, salbaia, andrea jotzen duena, drogadiktoa... baina ez du ikusi nahi miserablea. Hori da show business-aren lehen lezioa. Arrakastari lotuta dago erabat, eta inork ez du beste bidea erakutsi nahi.

RUPER ORDORIKA, abeslaria

Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

OTXIÑAK EGIN → Aberastu. "Zure ama, bere denda zoztorrak, otxiñak egiten dago".

Argazki zaharra

Ardantzako labanderak XX. mende hasieran

Eibarren, sasoi bateko andren-tzat, arropak garbitzeko lanak ofizio edo lanbide bihurtu ziren. Lan oso gogorra zen, eta arropak errekan bertan zeuden labaderoetan egiten zuten. Argazkia: *Revista Eibar Herriaren Arima* (Rosario Aranbururen bilduma).



Farmaziak

BARIXAKUA 8
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
ZAPATUA 9
EGUNEZ Castaño (J. Etxebarria, 7)
DOMEKA 10
EGUNEZ Lekunberri (Isasi, 31)
ASTELEHENA 11
EGUNEZ Zulueta (San Agustin, 5)
MARTITZENA 12
EGUNEZ Elortza (J. Gisasola, 18)
EGUAZTENA 13
EGUNEZ Iraundegi (Calbeton, 19)
EGUENA 14
EGUNEZ Mendinueta (Urkizu, 6)
BARIXAKUA 15
EGUNEZ Azkue (T. Etxebarria, 4)
GAUEZ BETI, 2024an, Lekunberri (Isasi, 31)

Telefono jakingarriak

SOS deiak	112
Pegora	010
Udaletxea	943 70 84 00
Portalea	943 70 84 39
Udaltzaingoa	943 70 84 24
Mankomunitatea	943 70 07 99
Debegesa	943 82 01 10
KIUB	943 20 38 43
Kirol Patronatoa	943 20 32 40
Epaitegia	943 03 34 00
Iberdrola	900 17 11 71
Naturgas	902 12 34 56
DYA Larrialdiak	943 46 46 22
Gurutze Gorria	943 22 22 22
Eibar Ospitalea	943 03 29 00
Mendaro ospitala	943 03 28 00
Anbulategia	943 03 25 00
Torrekua	943 03 26 50
Errepedeak	902 11 20 88
Ertzaintza	943 53 17 00
Eusko Tren	944 33 33 33
Lurraldebus	900 30 03 40
Pesa	900 12 14 00
Taxiak	943 20 30 71 / 943 20 13 25
Andretxea	943 70 08 28
Alkohol. Anon.	629 14 18 74
Al-Anon / Alateen	650 26 59 63
Grupo Egun Bat (Jokozale	
Anonimo eta Familiak)	699 37 75 20

Hildakoak

- Mercedes Vitoria Gil. 91 urte. 2024-02-28.
- Jose Rodriguez Cabo. 84 urte. 2024-02-28.
- Jose Luis Conde Seara. 51 urte. 2024-02-28.
- Amada Ibazeta Egaña. 92 urte. 2024-03-02.
- Laura Gonzalez Garrosa. 77 urte. 2024-03-03.
- Joseba Argintxona Asla. 73 urte. 2024-03-05.

Jaiotakoak

- Laura Almeida Portes Steff. 2024-02-24.
- Zoe Rueda Sandoval. 2024-02-24.



ZAPOREAK LESBOS proiektua



Eguen arratsaldean aurkeztuko dute Zaporeak erronka solidarioa udaletxean

Zaporeak elkarteak herritar guztiak gonbidatu nahi ditu datorren astean, eguenean, 18:00etan udaletxeko pleno aretoan hasiko den aurkezpen-ekitaldira. Bertan, Lesboseko (Grezia) kanpamenduetan dauden errefuxiatuentzat janaria biltzeko asmoz, martxoaren 18an Debabarreneko herri guztietan abiatuko den Zaporeak erronka solidarioa aurkeztuko dute.



Jose Luis Mugikak jaso du Euskeraz primeran! ekimeneko saria

...eta kitto! Euskara Elkarteak Euskeraz primeran! ekimenarekin hartu du parte aurrean ere Neguko Aukeren Azokan, mahaira gerturatu direnei erosketetan euskara erabiltzera animatzeko ariketa erraz bat proposatuta. Parte-hartzaile guztien artean EMGI-k emandako 100 euroko erosketatxartela zozketatu zuten barixakuan eta irabazlea Jose Luis Mugika izan da. Merkatu plazako behargina da Jose Luis, eta momentuan bertan jaso zuen pozarren saria. Zorionak!

Armeria Eskola Elkarteak martxoaren 22an egingo du Urteko Batzarra

Martxoaren 22an egingo du Armeria Eskola Elkarteak Urteko Batzarra. Ekitaldia bazkide-tuta ez dauden enpresa, erakunde eta abarrei ere zuzenduta dago. Bertan, 2023an egindako proiektuak ezagutarazi eta 2024rako aurreikusitakoak aurkeztuko dituzte. Horrez gain, Jon Angulok *La bola de cristal: qué hacer bien en el presente para estar en el futuro* hitzaldia emango du. Amaiera ekitaldia, berri, Unai Andueza Foru Aldundiko Sustapen Ekonomikoko Zuzendari Nagusiak egingo du. Jarraian, networking-erako gune bat egongo da eta 1974ko promozio-koei intsigniak emango zaizkie bertan. Aurtengo Batzarra Teknikerren egingo da, eta bertaratutakoek instalazioak bisitatzeko aukera izango dute. Izena emateko 943203244/633909388 telefonoetara deitu edota elkarte@armeriaeskola.eus helbidera idatzi daiteke.



Bidegorria aldi baterako itxi dute ibilgailuentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiko Jasangarritasun Departamentuak itxi egin du Elgoibar-Eibarko bidegorria aldi baterako, prebentzio-neurri gisa, euriteek eragindako zuloa konpondu arte. Ezbeharraren 28an gertatu zen, Elgoibarko sarreran.



Eibar TEK proiektuari buruzko informazioa emateko hitzaldiak

Eibar TEK Tokiko Energia Komunitate sortu berriari buruzko azalpenak eibartarrei emateko, bi hitzaldi egingo dira: martitzenean (martxoak 12) izango da lehena, 18:30ean Coliseo antzokian; eta bigarrena eguenean, martxoaren 14an izango da, 12:00etan Errebal Plazan (aretoan). Horrez gain, proiektuan interesa izan dezaketen establezimenduentzat beste hitzaldi bat antolatu dute, martxoaren 19rako, 15:00etan Errebal Plazan. Horrez gain, informazio gehiago nahi duenak www.tekeibar.eus webgunera jo dezake, edo 900 859 695 telefonora deitu (astelehenetik barixakura, 10:00etatik 18:00etara).

Txonta auzoari eragingo dion Hirigintza Plan Nagusiaren aldaketa proposatu dute

Etorkizunean Txonta auzoa garatu eta berroneratu ahal izateko, auzoaren planeamendua prestatzea helburu duen Eibarko Hiri Antolamendurako Plan Nagusiaren aldaketa puntuala aurkeztu dute aste honetan Jon Iraola alkateak eta Ana Telleria Hirigintzako zinegotziak. Aldaketa puntualak, halaber, bere gain hartuko ditu Errekatxu kaleko 17, 19 eta 21 zenbakiak. Martitzenean aurkeztu zuten aldaketa Hirigintza Batzordean, eta aurrera egin dezan Udalbatzak onartu beharko du. Prentsaurrekoan esan zuten, “aldaketa honek aukera emango

du Eusko Jaurlaritzak Txontako hegoaldean alokairurako babes ofizialeko 200 etxebizitza eraikitzeko”. Horrekin batera, jarduketa honek Txonta auzoaren eraberritze integral bat burutzen lagunduko duela esan zuten: “Espazio libreak sortuko dira auzoaren bihotzean, eta Txonta kalea oinezkoentzako gune bihurtuko da. Bestetik, oraingo egoera hobetuko da, auzoa iparretik hegora zeharkatuko duen eta bi noranzko izango dituen bide bat egingo baita. Eta, horrekin batera, eraikinen ingurunea ere hobetuko da”.



Datorren astean egingo du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusia

Datorren martitzenerako, martxoak 12, deitu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak Urteko Batzar Nagusia elkartearen egoitzan (Urkizu 11, solairuartea). Lehenengo deialdia 18:30ean izango da; bazkideen erditik gora ez bada bertarutzen, ordu erdi geroago egingo da Batzarra, hau da, 19:00etan.





KORRIKako materiala zozketatuko dugu www.etakitto.eus atarian

Martxoaren 20an iritsiko da KORRIKA Eibarrera, eta etakitto.eus webgunean arropa eta bestelako osagarri ofizialak zozkatuko ditugu “motorrak berotzen” joateko. Oso erraza da parte hartzea: gure webgunean sartu eta, formulario baten bidez, izena, telefonoa eta e-maila besterik ez da eman behar.

Irabazle bat baino gehiago egongo da eta denetarik artikuluak egongo dira: kamisetak, lekukoaren formako giltzatak, 'Harro Herri' lelodun banderolak, lepokoak, bisera... Martxoaren 14ra arte parte hartu daiteke eta martxoaren 15ean jakinaraziko ditugu irabazleak webgunearen eta sare sozialen bidez.

Botoa posta bidez eman nahi dutenei laguntza emango diete Batzokian

Eibarko EAJ-PNVtik gogorazi dutenez, datorren Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei begira, posta bidezko botoa egiteko epea zabalik dago, apirilaren 11ra arte. Horrenbestez, egun horretan Eibarren egongo ez direla bada, kitenak aurretik bozkatzera animatu nahi dituzte. Era berean, jakinarazi nahi dute hautetsontzira joateko ezintasuna duten pertsonak botoa etxetik emateko aukera dutela, “notarioarekin eta ezelako kostu barik”. Botoa posta bidez edo notarioarekin egiteko interesa dutenei laguntzeko, Batzokian (Ego Gain 1, 1. D) egongo dira, astelehenetik barixakura, 11:00etatik 13:00era eta 18:00etatik 20:00etara. Bestela, 943120616 telefonora deitu edo eajpnveibar@gmail.com postara idatzi dezakete.



Pentsiodunak Martxoaren 8arekin bat

Martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna dela eta, Euskal Herriko Pentsiodunen Mugimenduak bere konpromisoa berretsi nahi izan du aste honetako mobilizazioetan eta, Bergaran egindako batzarrean onartu zuten dekalogo gogora ekarrita, “zaintza eta pensio duinak” eskatu zituzten emakume guztientzat.



Ipuruako anexoa erabiltzeko ordutegia

Udaletik jakinarazi dutenez, Ipuruako anexoko zelaia asteburuetan bakarrik egongo da erabilgarri herritarrentzat. Hala, asteburu honetan bihar egongo da erabiltzeko aukera, 14:00etatik 21:00etara. Eta domekan ezin izango da erabili. Informazio gehiago 943203240 zenbakian.



Hekimenek «konpromisoa» eskatu die erakundeei

Herriekimeneko euskal hedabideak biltzen dituen Hekimen elkarteak urteroko batzarra egin zuen barriakuan Andoaingo Martin Ugalde Kultur Parkean, eta euskal hedabideen sektorearen inguruko hausnarketa egin zuen. ...eta kitto! Hekimenen parte da, eta bertan egon zen.

Elkarteak plazaratutako oharrean nabarmendu duenez, egungo aldaketa teknologikoen, sozialek eta generazionalen “birsortzera” eraman behar dute euskarazko hedabideen sektorea, eta horrek ahalginak eskatuko ditu: “Traungo badugu, komunikabide eraginkorrak, kalitatezkoak, askotarikoak, modernoak, herritarrekin harreman estua dutenak, gure kulturari ongi errotuak, euskara ardatz dutenak, teknologikoki ongi garatuak, lantalde profesional formatuak dituztenak, berritzaileak, irudimentsuak eta egoki kudeatuak behar ditugu”.

Hekimenek gogorarazi du “2019. urtean abian jarri zen dirulaguntza eredu berriak bultzada ekarri duela euskarazko komunikabideek osatzen duten sektorearentzat, baina,

zoritzarrez, pandemiak eta gerrak tarteko, eraldaketa prozesua galtzen duten zailtasun gehigarriak sortu dira”.

Horrela, hauteskunde atarian gaudela aprobetxatuta, alderdiei eta erakundeei “konpromisoa” eskatu diete: “Eusko Jaurlaritzaren gidaritza eskuratzeko lehian ari diren alderdiei jakinarazi nahi diegu behar-beharrezkoa dela sektoreari beste bultzada handi bat ematea, zailtasunak gainditu eta berriro ere eraldaketaren bidea indarrez hartzeko”.

Lau konpromiso hartu ditu Hekimenek: berrikuntzan ahalegin sakona egitekoa, sektorea bere osoan garatuz; eraldaketa prozesua komunitatearekin eta administrazioekin batera egitekoa, beti garden jokatzuz; berrikuntzaren bidez, eraldaketa prozesu oso bat egitekoa, alor guztietan eraginez, kalitatean, kudeaketan, formakuntzan, egokitze teknologikoan zein hedapenean; eta, azkenik, beharrezko baliabideak eskuratzeko bideak urratzekoa.



Martxoaren 14ra arte egin daiteke 'Berrerabili eta berrasmatu' tailerretarako aurrematrikula

Udaberriko “Berrerabili eta Berrasmatu” tailerretan izena emateko epea zabalik dago. Tailerrak apirilaren 17an hasi eta ekainaren 6an amaituko dira eta hauek dira eskainiko dituztenak: *Ikasi ordenagailuko hardwarea eguneratzen eta konponketa txikiak egiten, Koadernatze sortzailea, Brikolaje tresnak erabiltzen ikasi, Biziberritu zure altzari eta dekorazio objektuak, Aprobetxamenduko sukaldaritza: sasoiko barazkiak, Katu-txoko, Ikasi zure bizikleta konpontzen, Makinaz nola josi: hasiberrientzako joskintza, Etxeko oinarrizko konponketak: elektrizitatea eta elektronika, eta Sortu zure dekorazio girlandak*. Tailerren katalogoa, informazio zehatzarekin, Udalaren webgunean eskuratu daiteke. Udaleko Ingurumen sailetik adierazi dutenez, “plaza mugatuak dira eta ezinbestekoa da aurrematrikularen bitartez izena ematea”. Martxoaren 14ra arte egongo da horretarako aukera, Pegoran, edo elektronikoki (<https://formularioak.eibar.eus/eu/berrerabilietaberrasmatu2024-01>). Berritasun gisa, onartutakoek martxoaren 19tik apirilaren 8ra egingo dute matrikula, Udalaren web-oriaren bidez.

Ateak zabalik oporrek bakean pasatzeko

Informazio
gehiago:



Udan 300 haur sahararri harrera egiteko familien bila dabiltza. Hori da aurtengo Oporrek Bakean egitasmoak duen helburua, eta horregatik abiatu zuen kanpaina joan den astean 'Uda bateko besarkada' goiburuarekin. Eibar-Sahara elkarteak bat egin du ekimenarekin eta herrian ere ari dira familiak lortu nahian. Horietako bat da Iruñe eta Luka Aranak eta Alex Gomezek osatzen dutena, Brahim gaztea hartuko baitute etxean.

Orain dela hiru urte iritsi zen Brahim lehen aldiz Iruñe eta Alexen etxera. Iruñek Internet bitartez izan zuen Oporrek Bakean programaren berri eta, gaia etxean aurretik aipatu izan zutenaz, pixka bat ikertu eta Edurne Uzkudun Eibar-Sahara elkarteko arduradunarekin harremanetan jarri zen. "Kafea hartu genuen, programa nolakoa zen azaldu zidan eta egunean bertan erabaki genuen aurrera egingo genuela", azaldu digu.

Erabakia bizkor hartu zuen bikoteak, eta hortik aurrera erraztasun guztiak jarri zizkieten udan haur sahararra hartzeko. "Bete beharreko paperak zeintzuk ziren eta non lortu ahal genituen argi eta garbi azaldu ziguten. Dena murtxikatuta eman ziguten. Paperak bete eta lortu beharreko dokumentazioa eskuratu besterik ez genuen egin behar izan", aipatu digu Iruñek.

Udan haur errefuxiatu sahararra hartzeko hiru baldintza besterik




ez dira bete behar: bizilekua, ohea eta mahaian plater bat edukitzea. Baldintza sinpleak dira. “Egia da, bestalde, haurra lehen aldiz hartzen duten familiekin bilera egiten dutela, zer aurkituko dugun eta esperientzia nolakoa izan daitekeen jakiteko”, argitu digu Irunek. “Gure bilerara Fronte Polisarioak Euskal Herrian duen arduraduna etorri zen eta zenbait gako eman zizkigun: otoitz egiteko ardurarekin etortzen direla, eskailera mekanikoekin eta argitasunarekin izutu egiten direla, eta abar. Baina alde horretatik ez genuen konplikazio handirik eduki”.

Are gehiago, edozein oztopo berehala konpontzen dute. “Hasierra baten, neskato bat etorri behar zen gurera, Minatu, baina esan ziguten azkenean ezin izan zela hegazkinera igo eta, haur batzuk Larrabetzuko aterpetxera eramaten dituztenez, euretako bat hartuko genukeen galdetu ziguten. Guk, zalantzarik gabe, baietz esan genuen, eta Brahim etorri zen”, kontatu digu bikoteak.

Hasieran, “oso urduri” zeuden denak, baina berehala hartu zuten konfiantza. “Motxila barik etorri zen, lehengusu batek hartu omen zuelako nahi barik edo, eta arropa eroatera joan ginen. Pintxoa jan genuen, arroparekin emozionatu egin zen eta Eibarrera bueltan lo seko geratu zen, demaseko bidaia egin zuelako hona iristeko”, azaldu digute. “Egun horretan bertan Alexi eskua ematen zion”, dio Irunek.

Bikoteak esan digu oso erraza izan zela egokitzapena eta euren arteko komunikazioa (batak bes-



Ezkerrean, Alex, Brahim, Irune eta Luka. Goian, aurtengo kanpainaren kartela.

>>> Aurten hirugarren urtez jarraian etorriko da Brahim Irune, Alex eta Lukaren etxera uda pasatzera

tearen hizkuntza jakin ez arren), erraza den bezala Oporrak Bakean egitasmoan parte hartzeko izena ematea. oporrabakean.eus web-orrian aurkitu daiteke informazio gehiago eta Eibar-Sahara elkartearekin harremanetan jarri daiteke Facebookeko orriaren bitartez.

Oporrak kanpamenduetatik urrun Saharako haurrak bi hilabetez etortzen dira Euskal Herrira. “Sanjuanak inguruan datoz eta abuztuaren amaieran joaten dira”, azaldu digu



Uda errefuxiatuen kanpamenduetan bizi diren baldintza gogorretatik urrun pasatzeko aukera eman nahi zaie haurrei. OPORRAK BAKEAN

bikoteak. Denbora horretan gure naturaz, ohituraz, kulturaz, hizkuntzaz... gozatzeko aukera ematen zaie. Gainera, beste tokiren batera oporretan joan nahi izanez gero, egin daiteke, beti ere estatuen barruan egiten bada. “Lehenengo urtean Torrevejara joan ginen eta ez zitzaion gustatu. ‘España no, País Vasco’, esaten zuen Brahimek”, kontatu digu Irunek barrez.

Azken neurrian, haurrak basamortuko udako baldintza gogorretatik aldentzea (udan 50 gradu baino gehiagoko tenperaturak, hare ekaitzak...), euren osasuna hobetzea elikadura orekatu baten bitartez, oinarrizko osasun azterketak egitea eta kanpamenduetan antzeman edo tratatu ezin diren gaitzak artatzea, haurrek kultura eta hizkuntza berriak eta beste errealitate bat ezagutzea, Mendebaldeko Sahara eta Herri Sahararraren egoeraren inguruan euskal herritarrek sentsibilizatzea, eta gizarte sahararraren eta euskaldunaren arteko harremanak sustatzea dira helburuak.

>>> 300 familia lortu nahi dituzte udan haur errefuxiatu sahararrak hartzeko

Harreman estua

Irunek eta Alexek aurten hirugarren urtez jasoko dute Brahim eta bigarren aldia izango da Brahim eta Luka elkarrekin egongo direna. “Brahimek dio Luka bere anaitxo delá”, esan digu bikoteak. Izan ere, familia eibartarraren eta Brahimen artean oso harreman estua sortu da, baina ez hori bakarrik, baita Brahimen familiarekin ere. “Ia egunero egiten dugu berba eurekin”, esan digu bikoteak.

Oraindik ez dute kanpamenduetara joateko aukerarik izan, baina irrikitan daude. Dena dela, oso gertu sentitzen dituzte eta errefuxiatu sahararrek bizi duten errealitatea oso gertutik ezagutzeko aukera eman die esperientzia honek. “Brahimi

mek bere herriak bizi duen gatazka azaldu digu”, dioskue. Errefuxiatu kanpamenduetan bizi dira, Tindufetik gertu, Algerian, basamortuan, baina oso ondo dakite non dagoen euren herria, nahiz eta euretako asko, Brahim bezala, erbestean jaio eta bizi behar izan den. “Ez nuen ezer ezagutzen Saharako gatazkari buruz eta Brahimi esker jakin dut. Hitz gutxirekin asko esaten dizu”, Alexen berbetan.

Bikote eibartarra oso eskertuta dago esperientzia hau bizitzeko aukera izanagatik. “Umiltasun kolpea eman dit esperientzia honek. Pribilegiatuak garela ikusten duzu. Brahim ekartzeak esnatuarazi egin dit moduren batean”, esan digu Alexek zintzoki.

Hurrengo urtean azkeneko aldiz jaso ahal izango dute Brahim, ekimena 8 eta 12 urte arteko umeentzat delako eta muga gaidituko duelako, baina familia eibartarrak Oporrak Bakean egitasmoarekin bat egiten jarraituko du. “Brahimen arrebaren bat ez bada, beste ume bat hartzeko prest gaude”, berretsi dute.


Neinor HOMES

ARRATE HOMES • EIBAR

AUPA EIBAR



Zatoz pisu pilotua ikustera

Gimnasioa • Gourmet aretoa • Garajea • Trastelekua

NEINOR STORE: Bidebarrieta, n° 6

900 11 00 22 • neinorhomes.com

BATXILERGO ARTISTIKOA: ARTE PLASTIKOAK ATE IREKIAK: MARTXOAREN 14AN 18:30etan

Jardiñeta, 3
943 899 262

Ikastetxea ezagutu eta informazioa
jasotzeko eman izena:
jardinetazuzendaritza@eibarbhi.eus



“Jendeak Saalda erosiko du solidarioa delako, eta ona dagoelako eta ondo egiten diolako errepikatuko du”

MIKEL LIZARRALDE • Saalda



Osasuntsua, solidarioa eta zapore ederrekoa. Horrelakoa da Saalda, Mikel Lizarralde martxan jarri duen proiektua. Su txikian hoge orduz egositako behi-hezur salda prestatu du (beno, berak ez, Elorrioko Delikatetxek kooperatibak baizik, baina berak sortua da proiektua) eta irabaziak Gobernu Kanpoko Erakundeei emango dizkie.

Mundua toki pixka bat hobea egiten saiatzeko ekintza gozoa da Saalda. Ondo eta osasuntsu jateko aukera ematen digu Lizarralde eta, gainera, eredu izan daiteke irabaziak pertsona gutxiren artean banatzea helburu besterik ez duten enpresentzat.

Zenbait erronkatan hartu izan duzu parte azken urteotan, proposamen bereziak eskainiz, baina Saalda bai dela orijinala. Nola sortu zen ideia?

Esklerosi anizkoitza diagnostikatu nindutenean gaizki pasa nuen. Zuloan egon nintzen eta, horren ondorioz, babes handia jaso nuen. Ez bakarrik Maria bikote-kidearena, familiarena edo lagunena, jende askok lagundu zidalako. Gero, laguntzeko prest dagoen gizartea dugula ikusi dut, orokorrean. Osakidetza dugu momentuz, eta espero dut ez desegitea, baina laguntzen duten elkarte batzuk ditugu. Hortik hasi zen ideia hazten. Bestetik, kirol-erronka solidarioak egin nituen. Politikak izan ziren eta dirua bildu nuen elkarte batzuei emateko. Lehenik, ADEMGIRi, Gipuzkoako Esklerosi Anizkoitza Elkarteari; eta gero, Biodonostiari. Kontua da ezin nintzela denbora gutxian koadrilakoei estortsio egiten ibili nire aurpegia

duen arroparekin. Beste alde batetik, Delikatetxe kooperatiba ezagutu nuen. Salda egiten dutela ikusi nuen eta, horren barruan, hezur-salda. Ezberdina da, gehiago egosten delako. European asko saltzen dela esan zidaten, baina hemen ez hainbeste, eta osasunarentzat abantaila batzuk dituela. Orduan, bonbilla piztu zitzaidan eta hari ezberdinak lotu nituen: batetik, proiektu solidarioak landu nahi ditudala, nik jaso dudana gizarteari itzultzeko; eta bestetik, enpresa bat sortzea sistema barrutik pixka bat apurtzen duena. Izan ere, nire ustez gauza asko txarto daude eta horri buelta bat emateko asmoa dut.

Mundua pixka bat hobea izateko asmo horretan, nolako filosofia du proiektuak?

Apaltasunez (eta eibartar batek hori esatea pixka bat arraroa da), badakit honek ez duela mundua irauliko, baina pixkatxo bat egin dezala. Zer bilatzen den? Irabaziak bezeroek proposatutako eta erabakitzen duten elkarteekin partekatzen baditugu, esaten ari gara enpresa bat sortu daitekeela, ibilbide bat egin eta bere irabaziekin mundua pixka bat hobetu dezakeela. Distantziak alde batera lagata, niretzat eredia Patagonia enpresa da. Enpresaren sortzaileak fundazio bati saldu zizkion bere akzio guztiak eta gaur



Saaldak bere bidea egingo duela eta produktu berriak etorriko direla aipatu digu Mikel Lizarralde. EKHIBELAR

egun fundazioa da enpresaren jabea. Fundazioa natura zaintzen eta egoerari buelta ematen saiatzen da.

Saaldaren bezeroek nola erabaki dezakete irabaziak nori eman?

Orain arte dena planak eta asmoak ziren, baina orain gauzatu egin dugu. Urtarrileko eta otsaileko irabaziak, azken kalkuluen faltan, 1.300 euro inguru izango dira. Orain dela bi aste bezeroei proposatu nien irabaziak zein elkarteri eman nahi zizkieten esateko. Hogei elkarte inguru proposatu eta bozkatu zituzten, eta espero ez nuen zerbaite gertatu zen: bozketan berdinketa eman zen. Beraz, erdibana egin genuen, eta itsasoan immigranteak salbatzen saiatzen den Aita Mari elkarteak eta Aspanogik (Gipuzkoako minbizia duten adingabeen familien elkarte) jasoko dute dirua. Ez da asko, 650 euro bakoitzarentzat, baina enpresengan eragina edukitzea da asmoa. Beste enpresek ikusi dezatela badagoela egiteko beste modu bat. Euren irabaziak akziodunen artean banatu beharrean, beste gauza batzuk egin daitezkeela.

Era berean, parte-hartzearen edo kontsumoaren aldetik, gizartea inplikatzeari lortu daiteke.

Hori da. Proiektuaren bigarren pausoa izango da, kasu honetan, Aita Mariren eta Aspanogiren jendea-

“Beste enpresek ikusi dezatela badagoela egiteko beste modu bat. Euren irabaziak akziodunen artean banatu beharrean, beste gauza batzuk egin daitezkeela”

rekin berba egitea, elkarrizketa txiki batzuk egitea, egiten dutena ikustea eta hori zabaltzea. Ezagunak dira, baina egiten dutena gehiago zabaltzea da asmoa, eta kate bat izan dadila. Honekin guztiarekin ez dut donazioak egotea sustatu nahi, hori administrazio publikoak egin beharko lukeelako; baina, ez dutenez egiten, guk hartzen dugu inizatiba eta gure esku dagoena egiten saiatzen gara egoera pixka bat hobetzeko. Aita Marik itsasoan erreskatatzen ditu immigranteak eta hori ez litzateke gertatu beharko, baina ez dutenez egiten egin behar dutena, Aita Marik egiten du lan hori. Beraz, lagundu dezagun Aita

BIDEOA



Mari. Minbizia duten haurren gurasoek Osakidetza-aren aldetik ez dutenez eduki beharko luketen babesa jasotzen, Aspanogi bezalako elkarteak daude. Beraz, lagundu dezagun Aspanogi.

Saalda bera egiteko ere gertuko enpresa batera jo duzu, Delikatetxera.

Hasteko, salda ez dut nik egiten (barreak). Delikatetxekoak artistak dira saldak egiten, eta saldak egiteko modua ere ezberdina da. Irteerarik ez zuten oiloekin salda egiteko sortu zuten kooperatiba. Horrela hasi ziren, eta era berean, irteerarik ez zuten barazkiei irteera ematen diete. Izan ere, erabiltzen dituzten barazkiak zatarrak dira. Adibidez, porruei dagokionez, bandejan sartzen ez diren zatiak erabiltzen dituzte, oraindik onak direlako. Gainera, bertako produktuak dira. Osagaiak ez dira ekologikoak; ekologikoak erabili nahi bagenitu, ez liratekeelako Euskal Herrikoak izango. Ez da ekologikoa, baina ekologikoak Soriatik ekarri behar izaten dituzte. Eta zer gertatzen da horrek sortzen duen karbono oinatzarekin? Saaldak ere baditu hobekuntzarako alderdiak. Online-denda da eta kaxa bat Cambrilsera bidaltzea ez da munduko gauzarik garbiena. Kontraesanak ditugu, baina saiaturako gara konpontzen.

Saldari dagokionez, nolakoa da?

Supermerkatuetan aurkitu ditzakegun salda normalak hiru orduan egosten dira (eta ondo dago, ez dut ezer horren aurka) eta hezur-salda 20 orduz egon behar da egosten, poliki-poliki, hezurak kolagenoa soltatzeko. Horrek egiten du hezur-salda kolagenoan aberatsa izatea eta baita garestiagoa ere, prozesatzeko denbora gehiago behar delako.

Nolako zaporea du?

Hezurrarekin eta okelarekin egindako salda da, eta zapore bizia du. Ez bazaizu hain bizia gustatzen, ur pixka bat bota eta zaporea moteldu daiteke.

Osasunarentzat onurak dituela aipatu duzu. Zeintzuk?

Ez dut esango mundua salbatzeko balio duenik, baina kolagenoan onura nahikotxo omen ditu. Saltzen duenak zer esango du ba, zoragarria dela, baina hainbesteraino ez dut kamiseta hori jarriko. Itxura de-



“Urtarrileko eta otsaileko irabaziak 1.300 euro inguru izango dira eta, bezeroek aukeratuta, Aita Mari eta Aspanogi elkarteei emango diegu dirua”

nez, kolagenoak hezurretako eta artikulazioetako molestia arintzen laguntzen digu, batzuei azaleko ximurrak kentzen laguntzen dizkie eta, ohera joan baino ordubete lehenago salda edanez gero, hobeto egin daiteke lo. Gainera, digestio hobekia edukitzen laguntzen du, heste-iragazkortasunarentzat mesegarria omen delako. Nik gustora hartzen dut eta horregatik hartzen dut. Beti diot gauza bera: jendeak erosiko du solidarioa delako, eta ona dagoelako eta ondo egiten diolako errepikatuko du. Ez dut mirari-produktu bezala salduko. Probatu eta, ondo egiten badizu, berriz erosi.

Lore, Landare eta Zuhaitz XIV. Azoka

Ordua: 10:00 - 14:30
11:30 Haurrentzako tailerrak

Martxoak 16

Eibarko Urkizu Plazan

EIBARKO UDALA **deKOLORE**

23. Korrikan zure herriko kilometroa ikusi nahi duzu?

www.hamaika.eus/23korrika

Sartu eta egin erreserba

Bideoa bidaliko dizugu prest dagoenean!

hamaika

Facebook, Instagram, YouTube, Twitter, LinkedIn icons

T, E/K/Eibar

Azkenean, eredu energetiko bat zuretzat bakarrik pentsatua

INFORMATU ETA HURBIL
ZAITEZ TEK EIBAR
PROIEKTUAREN BI AURKEZPEN
HAUETAKO BATERA

www.tekeibar.eus
info@tekeibar.eus
900 859 695

martxoak 12 asteartea 18:30 Coliseo antzokia
martxoak 14 osteguna 12:00 Errebal Plazia

Kontsumitu Eibarren sortutako energia jasagarria, plakak zure etxean baleude bezala
AURREZTU BAINO ASKOZAZ GEHIAGO!

Loguntzaileak
EIBARKO UDALA
Kudeatzailea **Gdiner**

San Andres Gozotegia

- **tartak**
- **enkarguak**
- **etxera**

Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

LORADENDA

San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

LORA ETA LANDARE NATURAL ETA LEHORRAK
EZKONTZETARAKO LORAK
ZENTROAK
ERRAMUAK
Enkarguak etxera

Zaintzak erdigunera aterako ditu M8ak

Emakumeen Nazioarteko Eguna da gaur, eta Martxoaren 8ko lantaldeak hilabete osorako egitaraua prestatu du. Horrekin batera, Matrak neska* gazte taldeak gaur arratsalderako manifestazio zaratatsua deitu du, *Gure bizitzekin negoziatorik ez!* goiburuarekin. Mobilizazioa 19:30ean hasiko da, Untzagan. Ordubete aurretik, 18:30ean, kartelak egiteko txokoa egongo da bertan.



E guztenean, gaurko giroten joateko, Matrakak zaintza lanen banaketa desproporzionala agerian laga nahi izan zuen, Emagin elkarte feministak emandako datu batzuk Untzagan erakutsita. Horietako batzuk hona ekarri ditugu: Emakumeek urtean 400 ordu gehiago lan egiten dute batez beste, baina %25 gutxiagoko soldata jasotzen dute, ordaintzen ez diren lanetan ematen dituztelako ordu asko. Hego Euskal Herrian 182.000 dira ordaintzen ez diren lanak egiten dituztenak, eskubiki. Gehienak emakumeak dira. EAeko Denbora Aurrekontuen Inkesten arabera, emakumeek etxeko lanen eta zaintzaren %70 inguru egiten dute. 2021ean, emakumeek batez beste 9,5 ordu dedikatzen zituzten egunean etxeko lanetan, adin-gabeak eta mendeko pertsonak zaintzen; eta gizonek, 6,5 ordu. Biztanleria ez aktibo gisa izendatzen direnen artean, 360.400 emakume daude EAEn, eta horiek maiz egiten dituzte etxeko zein zaintza lanak. Ez-aktibo dauden gizonen %31,8k, aldiz, ez du sekula etxeko lanik egin, edo oso noizbehinka bakarrik. Gauzak horrela, gaurko manifestazioan gauzak aldatzea eskatuko dute: “Ez dugu kapitala sistemaren zentroan jartzen duen sistema batean bizi nahi, guk bizitzak erdigunean jartzeko borrokatuko dugu eta horretarako instituzioei



Egitarau osoa ikusteko:



erantzunkizunak hartu eta gure bizitzekin negozioia egiteari utz diezaieten eskatzen diegu”.

Zaintzak, denon bizitzak erdigunean

Arrate Kultur Elkarteak, SD Eibar Fundazioak, Eibarren Akebaik, Neledantzak, Kaxa Mugimendu eta Sormen Guneak, Pagatzak, Berdintasun Zerbitzua-Andretxeak, ...eta kitto! Euskara Elkarteak eta hainbat norbanakok osatzen duten Martxoaren 8ko lantaldeak ere zaintzaren gaiari heldu dio aurtengo egitaraua antolatzeko. Hilabete osorako egitarauaren baitan, bihar, 11:00etatik 12:30era Neledantzak eta ND11k dinamizatutako zumba saioa egingo da Errebal Plazan, parte hartu nahi duten emakume guztientzat, eta doan. Antolatzaileen berbetan, “gainera, zaintzarekin lotutako gogoetak, esperientziak edo hitzak partekatu ahal izango dira, zumbatoiari amaiera emango dion Zuhaitz morean”. Domekan, berriz, Kaxaren eskutik dantza-performancea eta mural kolektiboa egingo dira, 13:00etatik aurrera, Untzagan, “dantzaren birtatez gizartea zaintzaren inguruan sentsibilizatze-ko”. Astelehenean, 18:30ean, June Baonza Pagaldai (Durango, 1979) artistaren *Ama ta Asunak* erakusketa zabalduko dute Andretxean, proiektuaren inguruko solasaldiak eta dokumentalaren emankizunak lagunduta. Eta eguaztenean, Miren Aranguren Etxartek *Ez dadin bizitza eten* liburua aurkeztuko du, 18:30ean Andretxean. Egitaraua osatzen duten jardueri buruzko informazio guztia Berdintasuna-Andretxearen webgunean aurkituko duzue.

Zumbatoi Morea

Norbera zaindu, elkar zaindu, besteak zaintzeko



LARUNBATA 9,

Errebal Plazia

11:00-12:30

Dinamizatzaileak:

NELEDANTZA eta ND21



Dantza performance eta mural kolektiboa

Zer da zaintza?



IGANDEA 10,

Untzaga

13:00

Erakusketa, dokumentala, solasaldia

Ama ta Asunak

June Baonza Pagaldai

ASTELEHENA 11

Andretxea

18:30

*Informazio gehiago aurkitzeko epegi du.

[EUS]

Erakusketa

18:30 - 19:30 h. artean.

Liburu aurkezpena Ez dadin bizitza eten



Miren Aranguren Etxarte

ASTEAZKENA 13

Andretxea

18:30

[EUS]

*Informazio gehiago aurkitzeko epegi du.

“Korrika bizi dugun jende asko gaude, oso ekimen garrantzitsua da eta hori azpimarratu nahi nuen”

ITZIAR SAENZ DE OJER • Pituxa clown



Pituxa clownak (Itziar Saenz de Ojerrek) ‘Ttipi-ttapa’ izeneko bakarrizketa eskainiko du hilaren 14an, eguenean, 19:30ean, Zaizoi tabernan. Izenburuak argitu dezakeen bezala, Korrikaren inguruan jardungo du pailazoak, Korrika Kulturalaren baitan antolatu baitu ekintza hori ...eta kitto! Euskara Elkarteak. Sarrera doakoa izango da. Beraz, oso merke egongo da barre gogotik egitea.

Pituxa Rositaren azalean sartuko da ikuskitzuzun horretan. Rositak dena daki Korrikaren inguruan eta aurtengo ekimena noiz hasikoden zain dago. Eta prest, noski. Bere esperientzia baliatuz, Korrikari buruz datu eta gakoak emango ditu bertan, eta barreak ez dira faltako.

Zein da Rosita?

Bakarrizketaren helburua Korrikaren inguruan berba egin eta informazioa ematea da. Izan ere, Euskal Herrian Korrika bizi dugun jende asko gaude, oso ekimen garrantzitsua da eta hori azpimarratu nahi nuen. Rosita 60 urte inguruko emakumea da eta hasiera hasieratik bizi izan du Korrika. 1980an, Korrika egin zen lehen urtean, euskaltegiko ikaslea zen eta gero irakasle izatera pasa zen. Korrika oso ekimen garrantzitsua da beretzat, euskaldunok dugun ekimen garrantzitsuena, eta 1980az geroztik, urtez urte, Korrika guztietan parte hartu izan du. Asko emozionatzen da euskararekin eta Korrikarekin.

Pertsonaia sortzeko orduan benetako jendea izan duzu eredu edo hainbat lagunen batuketa da?

Pailazoa naiz berez eta pertsonaia ezberdinak erabiltzen ditut ikuskizun ezberdinetan. Rositaren per-

tsonaia gehiagotan erabili izan dut, baina Korrikaren inguruan dokumentatzen aritu naiz eta sasoi hartan (1980an) Korrika bizi zuen zenbaitekin hitz egin nahi izan dut. Beraz, gutxi gora behera Rositaren adina duen emakume batekin bildu nintzen. Bizitza guztian izan da AEK-ko irakaslea eta bere bizipenak eman zizkidan. Telefonoz beste batekin hitz egin dut eta, gero, unibertsitate sasoiaren AEK-n praktikak egin nituenez, bertan ibilitako jendearen inspiratu naiz pertsonaia osatzeko.

Korrika egunean beti txandal bera jantzen du Rositak. Zergatik?

Korrika da bakarrizketan lantzen den gaia, baina aitzakiak bilatu behar nituen berau umorez lantzeko. Ez naiz batere kirolaria eta Rositak ere ez du kirolik egin bere bizitza guztian. Txandal bat jantzi zuen lehendabiziko aldia Korrikaren lehen edizioan izan zen eta bi urtetik behin jantzen du, bi urtetik behin egiten duelako bakarrik korrika. Orduan, txandal vintage bat erosi dut, arrosa kolorekoa.

Korrikaren abestien bitartez errepasoa egiten du Rositak. Aurten, gainera, eibartar batek sortu du abestia, Mursegok hain zuzen ere. Zer iruditzen zaio abestia?

Esan bezala, aitzakiak bilatu ditut Korrikaren ingu-



Pituxa klown Erronkarin eskainitako emanaldian.

ruko informazioa sartzeko. Banekien zein informazio eman, baina ez nuen modua aurkitzen. Orduan, abestiak eta beste informazio batzuk emateko, andereño Rositak galderak egiten ditu jendeak Korrikari buruz zenbat dakien jakiteko. Beraz, Egunean Behin lehiaketa oinarri hartuta, Korrikari Behin lehiaketa egiten du eta galderak botatzen ditu publikoak erantzuteko. Parte-hartzeko emanaldia da. Ez dut nahi publikoak gaizki pasatzea. Alderantziz, ondo pasatzea nahi dut. Orduan, emanaldia hasi aurretik koloreetako piruletak banatzen ditut eta galdera bakoitzak hiru erantzun posible izaten ditu, kolore bati lotua, eta publikoak piruletak altxatuz erantzun dezake dagokion kolorearekin. Korrikaren abesti asko dago eta denak ez ditut jartzen, baina batzuk bai. Azkena, Mursegorena, sartzten dut. Izan ere, Rositari abestia eta bideoa asko gustatu zaizkio, sasoi bateko abestiak gogorazazi dizkiolako. Abesti modernoak egon dira, estilo ezberdinetakoak, eta aurtengoak badu kutsu retroa. **Korrikarako berotzen joateko saio proposa dela dirudi.** Hori da helburua. Lizartzan bizi naiz eta orain dela bost urte egin zen Korrika goizeko 03:00 inguruan

“Abestiak eta beste informazio batzuk emateko, andereño Rositak galderak egiten ditu jendeak Korrikari buruz zenbat dakien jakiteko”

pasa zen Tolosaldeetik. Lagun batek Andoaingo AEK-n egiten du lan eta goizeko 03:00etan Tolosan egongo nintzatekeen galdetu zidan. Abestia oinarri hartuta, sketch moduko bat prestatu nuen, beroketa-saio batekin, eta abar. Orain dela bi urte, azken Korrikari, herrian beste sketch bat egin nuen. Beraz, materiala nuenez eta oso Korrikazalea naizenez, Korrikaren inguruan 50 minutu inguruko emanaldi bat prestatu nezakeela pentsatu nuen, Korrika pasatu aurretik berotzen joateko. Gainera, Korrikarentzat aportazio bat egiteko modua zela ikusi nuen, eta asmo horrekin sortu dut ikuskizuna.

Deporrekoek atek zabaltzen dizkie xendazaleei Aste Santurako

Klub Deportiboko mendi batzordekoek aurtan bi hautabide eskainiko dizkie Aste Santuko ohiko irteeran parte hartuko dutenei: mendikoaz aparte, xendazaleen edo bidezidorlariena ere prestatu dutelako. Antolatzaileek dioten bezala, “horrela, klubaren ohiko txangoen maila aldarazi eta bidezidorren aukera eransten dugu, lasaigo ibili nahi duten mendizaleentzat, gailurretara igo gabe, herri eta herrixkak eta bertako paisaiatz astiro gozatu gura dutenentzat”.

Aste Santu honetarako Deporrek bost eguneko txangoa prestatu du Gredosko mendikatera eta Tietar Haranera, hilaren 28an Eguen Santuz irten, eta apirilaren 1ean astelehenez itzultzeko. Ibilaldiak Avilako probintzian egingo dira, nagusiki Gredoseko mendikatearen hegoaldeko isuri aldean. Gailurretara igo nahi dutenek Alto de la Hoya (2.134 m), Pico Torozo (2.021 m), La Fría (1.983 m), La Mira (2.343 m.)



Bost eguneko txangoan La Mira tontorra ere igotzeko asmoa dute Deporrek.

eta Morezón (2.389 m) erpinetara jo dezakete, eta bertako desnibela 800etik 1.300 metro artekoa da. Bidezidor eta xenda-ibilbideek, bestalde, 15 kilometroko batez besteko luzera dute, eta bildutako igoera-desnibela 400 metrokoa da. Izenematea zabalik dago honezkero eta, kontuan izanda ostatu-lekua mugatua dela, interesatuok klubera jo dezakezue edo 943-201904 zenbakira deitu, beti ere martitzen eta eguenetan.

Udalatx hurrengo Klasikoa

Aurretik, martxoaren 16an, aurtan Deporrek prestatu duen Klasikoen egitarauaren barruan, Udalatx tontorreraino igoko dira. Eibartik abiatu eta, 1.120 metroko mendi hori zapalduta, Udalaren amaituko dute ibilaldia. 20 kilometro osatuko dituzte guztira, pilatutako igoera 1.768 metrokoa izateko eta jaitsierakoa 1.393 metrokoa. Udalako mendilerroan kokatutako Udalatx Arrasate eta Elorrioren artean dago.

Hiru lehiaketa izango dituzte Ipuruako gimnastek bihar eta etzi

Euskal Ligaren lehenengo fasea jokatu da bihar Leioan, Espainiako Koparako eta Txapelketarako txartelak jokoan direla. Kopakoa lortzeko helburuarekin izango dira bertan senior eta jubenil mailetako Ipuruako taldeak, eta Txapelketa-

koaren bila jardungo dute bakarka Nahia eta Haizeder Arguiz ahizpek. Ipuruako amateur eta federatu mailetako hainbat gimnastek, bestalde, domekan Beti Aurrera Torneoan lehiatuko dute Gasteizen. Azkenik, klubeko txikienak, benjaminak,


Arrasaten hartuko dute parte Gipuzkoako Federazioak antolatutako topaketetan.

Aurreko asteburuan ere lehia bizian murgildu ziren Ipuruakoak hainbat probatan. Gasteizen jokatutako Oskitxo torneoan oinarri jubenil taldeak zilarra bereganatu zuten, bi pelota eta hiru uztai erabiliz lantzen diharduten koreografiarekin. Eta senior absolutu mailako Arguiz ahizpek 8. postuan amaitu zuten: Nahia mazoekin eta Haizeder pelotaz. Aipatutako bi horiek otsailaren 25ean jokoan izan zen Arabako Federazioaren Torneoan brontzea eskuratua zuten, bakoitzak bere aparatuekin.



Euskadiko Apnea Txapelketa jokatu da zapatuan Ipurua kiroldegian

Ipuruako igerilekuak hartuko du zapatuan 2024ko Euskadiko Apnea Txapelketa, Indoor Open mailakoa eta Espainiako Txapelketarako baliozgarria. Klub Deportiboko Urpekarien batzordeak Euskadiko Urpeko Jardueren Federazioarekin antolatutako txapelketan estatika eta dinamika modalitateak praktikatu dira eta guztira 26 parte-hartzaile izango ditu, zortzi emakumezko eta 18 gizonezko. Euren artean izango da aurretik ere Euskadiko, Espainiako eta Munduko apnea txapelketetan izan den Garikoitz Iruretagoiena Klub Deportiboko apneista. Proba horiek 13:45ean hasi eta 20:30 bueltan amaituko dira. Jardunaldia amaitzeko, bestalde, sari-banaketa egin-



go da, baina ekitaldi hori 100 urte betetzen duen Deporrek bulegoetan izango da.

Herriko pilotari asko Udaberri txapelketako azken fasera heldu dira

Oso bolada onean ari dira Klub Deportiboko pilotariak, eta horren erakusle dira kadete eta senior mailako bikoteek asteburu honetako Udaberri txapelketako final-laurdenetako eta finalerdietako partiduak. Horiek jasoko ditu gaurko Astelenako jaialdiak, 19:00etatik aurrera, Eibarko Pilota Eskolatik irtendako kadeteen protagonismoarekin: hasteko, Oñitz Urkiagak eta Aleix del Reyk Andoaingo Gazteleku klubeko Alvarez-Bidezabal bikotea izango dute aurrean; jarraian, Xuban Varonak eta Ekhi Azpilikuetak Azkoitiko Alberdi-Aldezabal izango dute aurkari.



Ibarrak eta Agirresarobek osatutako senior bikoteak Udaberri Mendebaldeko finalerdia jokatu dute bihar Azpeitiko Izarraitz pilotalekuan bertako bikotearen aurka. Eta infantil mailako Kepa Sarasketak eta Ekain Olaetxeak final-laurdenetako jokatu dute gaur Legazpin, Urbeltz pilotalekuan.

ASTEBURUKO AGENDA

FUTBOLA

Emakumezkoen 1. Maila

Madrid - EIBAR (bihar, 16:30)

Gizonezkoen 2. Maila

EIBAR - Burgos (etzi, 18:30)

Emakumezkoen 3. Maila RFEF

Oiartzun - EIBAR B

Gizonezkoen 3. Maila RFEF

VITORIA - Añorga (bihar, 15:30)

Emakumezkoen Euskal Liga

Erandioko Betiko - EIBAR C (etzi, 16:00)

Erregionaleko Ohorezko Maila

Tolosa - EIBAR URKO

Erregionaleko Gorengo Maila

URKI - Zestoa

Erregionaleko 1. Maila

EIBARTARRAK - Texas

FOBALL-ZALETUA

• Adahi Eraieder - Baserri (bihar, 09:00)

• BOJ - Xania Taberna (bihar, 10:30)

• Limpieza Rueda - Gastro Gilda (etzi, 09:00)

• Bar Marem - Garajes Garcia (etzi, 10:30)

ARETO-FUTBOLA

Gipuzkoako 3. Maila

Makax - EIBARTARRAK

ESKUBALOIA

Emakumezkoen Zilarrezko Maila

MEK EIBAR - Kukullaga (bihar, 16:30)

Gizonezkoen 1. Nazional Maila

MEK EIBAR - Barakaldo (bihar, 18:30)

Emakumezkoen Euskadiko Liga

Zarautz - MEK EIBAR B (bihar, 15:30)

Gizonezkoen Lurraldeko Liga

Salento - MEK EIBAR B (gaur, 20:00)

FRUGBIA

Gizonezkoen Euskadiko Erregionala

Kanpazar Arrasate - EIBAR

SASKIBALOIA

Emakumezkoen Gipuzkoako 2. Maila

EIBAR - ZAST Zarautz (etzi, 11:30)

Gizonezkoen Gipuzkoako 2. Maila

ART. JUANTXO - Elorri-Aldapa (bihar, 14:30)

Contubi Oiarso - EIBAR B (bihar, 20:00)

Gizonezkoen Gipuzkoako 3. Maila

Mundarro B - EIBAR C (bihar, 16:00)

WATERPOLOA

Gizonezkoen 2. Maila Nazionala

URBAT - Colegio Brains (bihar, 20:15)

Gizonezkoen Euskal Herriko Liga

WP Donostia - URBAT B (bihar, 20:15)

Emakumezkoen Euskal Herriko Liga

DN Portugaleta - URBIAK (etzi, 11:30)

GIMNASIA ERITMIKOA

Euskal Liga (Leioa)

IPURUAKo Seniorrak eta Oinarri Jubenilak



Futbol egokituaren jaia Ipurua anexoan

Ipuruako Anexoa futbol egokitua- ren jaiaren eszenatokia izan zen asteburuan, SD Eibar Fundazioak eta FEDPCK antolatutako 7 PC Futbol Ligako 4. eta 5. jardunaldietan. SD Eibar Fundazioaren taldeak garaipen bat eta berdinketa bat lortu zituen jokotutako neurketetan. Zapatuan armaginek 10-1 irabazi zioten Extremadurako Federazio- kioko taldeari, Josue Almeida (4), Sergio Rueda (2), Hector Gadea, Javier Lopez, Ibai Goikoetxea eta David Gamizen golekina. Askoz ere parekatuagoa eta zirrargarriagoa izan zen Fundación Segunda Parteren aurkako partidua, 2-2koarekin amaitu zena.

Pello Osoro profeta izan zen bere herriko Duatloiaren proban

Aurreko zapatuan jokotutako sprint modalitateko Eibarko Duatloiaren 30. edizioak eibartar bat izan zuen garaile, Peñota Dental Alusigma taldeko Pello Osorok jantzi baitzuen txapela, 47 minutu eta 41 segundoko denborarekin. Eguraldi kaxkarra izan zuten "lagun" partehartzaileek; hala ere, izena eman zuten 123 lagunetik, 13 besterik ez ziren izan aurkeztu ez zirenak. Bestalde, bi kenduta beste guztiek amaitu zuten proba, hau da, 110 iritsi ziren helmugara.

Osororengandik hiru segundora sartu zen Amandarri Triatloi Taldeko Alejandro Astaburuaga, eta minutu bat eta 11 segundora Isbilya-Sloppy Joe's taldeko Beñat Bengoetxea. Emakumezkoetan Zumaiako Triatloi Taldeko Helene Alberdi nagusitu zen, Lea La Blacako Nerea Calvo (57 segundora) eta Peñota Dentaleko Cristina de la Torreren (minutua eta 22 segundo geroago) aurretik.

Gure herriko JAZ Triatloi Taldeko ordezkariak honako postuetan



amaitu zuten: Pablo Zabala zazpi- garren izan zen, irabazlearengandik minutu bat eta 32 segundora; Ugaitz Gartzia 33. izan zen, Roberto Gartzia 49. ean sailkatu zen, Jokin Amorrosta 58. tokian helmugara- tu zen, eta Iñigo Gaston laugarren ordezkaria 91. postuan iritsi zen. Laurak euren mailetako postu onetan amaitu zuten: Ugaitz Gartzia hirugarren izan zen jubeniletan, postu bera lortu zuen Roberto aitak beteroen 2 mailan, eta Amorrosta eta Gaston seigarren eta zazpi- garren izan ziren, hurrenez hurren, 23 urtetik beherakoan sailkapenean.

Eibar Rugby Taldeak azken aukera bat izango du Ohorezko Mailari eusteko

Ohorezko Mailan jokatzeko duen Eibar Rugbyk garrantzitsua izan daitekeen garaipena lortu zuen domekan Rugby Barçari 17-18 irabazita Bartzelonan. Horrela, hemendik bi asteburura, hilaren 17an, Sevillan Ghenova Cocos taldearen kontra jokatu duen partiduan eibartarrek mailari eusteko azken aukera izango dute. Partidua hasi eta be-

rehala 5-0 galtzen joan ondoren, atsedendira heldu aurretik irauli zuten markagailua Cristina Guntinek zuzentzen duen taldekoek. 5-10eko hori 12-15era pasatu zen, ondoren kataluniarrek hartu zuten aurrea (17-15), eta azkeneko hiru puntuek garaipena eman zien eibartarrei. Aiora Ibarrek eta Oihane Lopez de Ullibarrik lortu zituzten



armaginen entseguak, eta Naroa Lopezek gauzatu zituen hiru osti- kada zutabeen artean.



Egitarau osoa
deskargatzeko:



martxoak 9 (zapatua)



“Bihar arte soilik”

Erre Produksioak (Bizkaia)
David Caiñaren lana
Komedia / 60'

Antzeleak: LOREA INTXAUSTI, NEREA ELIZALDE,
ALBAR CIRARDA, MIKELE ARIZKORRETA
Zuzendaria: GORKA MINGUEZ

Lagun talde baten bidaia ardatz, harreman irekiak eta sexualitatea ulertzeko modu berriak buruzko proiektua. Ikuspegi komiko batetik, baina angelu emozionala ahaztu barik.

Coliseo (19:00)

martxoak 10 (domeka)



“N'importe quoi”

Leandre Clown (Bartzelona)
Leandre Riveraren lana
Clown / 70'

Antzeleak: ANDREU SANS, CRISTINA SOLÉ,
LAURA MIRALBÉS, PERE HOSTA
Zuzendaria: LEANDRE RIVERA

Kataluniako clownik sarituenetako baten ikuskizun berria. Bost pailazo lagunak eta ate batek mundua buruz behera jarriko dute. Poesiazko eta umorezko keinu paregabea.

UNI-Eibar (19:00)

martxoak 11 (astelehena)



“Proyecto Helen Keller”

Chévere (A Coruña)

Antzerki dokumentala / 90'
Antzeleak: PATRICIA DE LORENZO,
ANGELA IBAÑEZ, CHUSA PEREZ
Zuzendaria: XION

Helen Keller emakume iparramerikarra mundu osoan egin zen ospetsu unibertsitateko titulua lortzen zuen lehenengo gor-itsua izan zenean, 1904an. Bere inguruko dokumentua da hau.

Coliseo (19:00)

martxoak 14 (eguna)



“El viaje del monstruo fiero”

Cía. Nal. de Teatro Clásico (Madrid)
Rafael Alvarez el Brujoren lana
70'

Antzeleak: RAFAEL ALVAREZ EL BRUJO,
JAVIER AJENO MUSIKARIA
Zuzendaria: RAFAEL ALVAREZ EL BRUJO

Autoreak dio munstroaren bidaia hau berak egindakoa dela, oraindik ere Espainiako Urrezko Mendearen gloria paregabearen aztarnak ospatzen dituzten eszenatokietan.

Coliseo (19:00)

“Gazteak antzerkira erakartzeko ez dira deskontuak behar, euren intereseko gaiak baizik”

GORKA MINGUEZ • Antzerki zuzendaria



‘Erre produkzioak’ antzerki taldeak ‘Bihar arte soilik’ antzezlan eskainiko du bihar, hilak 9, 19:00etan, Coliseo antzokian. Gazteei zuzentzen zaien antzezlan da eta, horretarako, gazteek sortu dute. Zuzendaritzan, oster, eskarmentu handiko zuzendari eta aktorea aritu da: Gorka Minguez.

Harreman irekiak, sexualitatea ulertzeko modu berriak... Horrelako gaiak lantzen ditu ‘Bihar arte soilik’ antzezlanak. Bertan Aitziber, Olatz, Ilargi eta Ekaitz laukoteak Karibera egiten duten bidaia kontatuko dute, gai sakonak umore kutsuarekin landuz.

Antzerki Jardunaldien aurkezpenean esan zuten antzezlan hau aproposa zela gazteak antzerkira erakartzeko. Ondo esan zuten?

Bai, horrela da. Antzezlan hau egin aurretik, Lorea Intxausti eta Albar Cirarda aktoreekin egin nuen lan ‘Fake’ ikuskizunean. Eurekin berriz lan egin nahi nuela esan nien eta, horretarako, landu beharreko gaia eurek nahi zutena izan zedila aipatu nien. Esan behar da, bestalde, euretako inork ez duela 24 urtetik gora. Beraz, eurek erabaki zuten gaia, baina argi genuen David Caiñak idatzi behar zuela antzezlanaren gidoia. Izan ere, aurretik ere Davidekin egin genuen lan, eta aktoreen eta nire adinen artean kokatzen da, nik 45 urte ditudalako eta Davidek 32.

Zein gai lantzea aukeratu zuten?

Harreman irekiak, aurreko belaunaldiekin alderatuz harreman sexualak eta identitatearen kontua gazteek nola bizi duten... Lorea Intxausti eta Nerea

Elizalde aktoreek zenbait bilera egin zituzten Davidekin, eta norekin lan egin nahi zuten galdetu genien. “Lagunekin”, erantzun zuten, eta horrela egin dugu. Denek ezagutzen zuten elkar eta oso erraza izan da dena. Davidekin egindako tailerretan testua planifikatu eta istorioa nondik bideratu zezaketen landu zuten. Kontua da antzezlanean harreman irekien inguruan egiten dela berba, antzezlanaren zuzendaria eta testuaren sortzailea erabat monogamoak garenean. Beraz, gazteen buruan sartu behar izan gara. Lanketa horretatik atera dugun ondorioetako bat da errespetua eduki behar dela beti, mugak daudela eta berba egin behar dela. Bakoitzak bere mugak ditu, baina beti daude mugak. Beraz, antzezlan ikustera gazteak ez diren ikusleak etortzen badira ere, identifikatuta sentituko dira.

Zergatik?

Lau pertsonaia daudelako eta bakoitzak bere modura bizi dituelako harreman pertsonalak, frustrazioak, eta abar. Orduan, pertsonaia batekin edo bestearekin identifikatuta sentitzea errazagoa izango da. Antzezlan Bilboko Arriaga antzokian eta Andoainen eskaini dugu, besteak beste, eta ikusi dugu publiko gaztea hurbildu dela. Beraz, lortu dugu gazteengana heltzeko helburua.



Gorka Minguez zuzendaria, eta Lorea Intxausti, Nerea Elizalde, Albar Cirarda eta Mikele Arizkorreta aktoreak.

Antzezlaren sorkuntzan gazteak egoteak lagunduko zuen horretan, ezta?

Kontua ez da izan euren buruan jartzea, baizik eta obra eurek sortzea. Hori bai, egitura enpresarial eta artistiko heldua eskaini diegu hori aurrera eramateko.

Aipatutako kontatzeko, nolako tonua erabiltzen duzue?

Komedia dramatikoak da eta, gainera, zinema kutsua du. Gazte batzuek beste batzuek baino modu dramatikagoan biziko dute antzezlana, baina orokorrean publikoak gozatu eta barre egingo du. Nahiko motza da, 70 minutuko iraupena du. Bestalde, obra saltzeko orduan antzerki-programatzaileei esaten genien gazteak antzerkira erakartzeko ez direla deskontuak bakarrik egin behar, baizik eta eurentzat interesgarriak izan daitezkeen gaiak landu behar direla. Arriskua duen apustua da hau, bai antzerki taldearentzat bai programatzaileentzat, 16 eta 25 urte arteko publikoari antzerkira joatea kostatzen zaiolako.

Era berean, ez da hain ohikoa antzerkian aktore hain gazteak ikustea. Hau da, ohikoagoa da telesailetan edo pelikuletan aktore gazteak ikustea, baina antzerkian ez hainbeste. Horrela da?

Bai, baliteke horrela izatea. Aipatzekoa da, adibidez, 'Bihar arte soilik' antzezlano hiru aktore 'Go!azen'

“Antzezlana ikustera gazteak ez diren ikusleak etortzen badira ere, identifikatuta sentituko dira”

telesailen agertzen zirela. Beraz, badute esperientzia ikus-entzunezkoetan. Antzezlan batzuetan badaude aktore gazteak, baina egia da ez dela ohikoena obra batean aktore guztiak hain gazteak izatea.

Bilboko Arriaga antzokian estreinatu zenuten antzezlana eta orain Eibarrera zatozte. Zuk ibilbide luzea egin duzu aktore eta zuzendari moduan. Nolako harremana duzu Eibarko Antzerki Jardunaldiekin?

Eibarko Antzerki Jardunaldiak erreferenteak dira Euskal Herriko antzerki munduan eta ilusio handia egiten du zure antzezlan bat bertan eskaintzeko aukeratua izateak. Eibarren aritzea berez da plus bat. Orduan, Jardunaldietan egotea are gehiago. Eibarren egon eta gero Donostiako Antzerki Azokan egongo gara. Antzerki-programatzaileek ikuskizun honen aldeko apustua egin dute eta oso eskertuta gaude.



Bulego eta La Pegatina taldeek emango dituzte Sanjuanetako kontzertuak

Aste honetan aurkeztu dituzte 2024ko San Juan jaierarako Udalak antolatu dituen kontzertu nagusiak Jon Iraola alkateak, Andoni Zabala Kultura zinegotziak eta Patxi Lejardi Jaietako zinegotziak. Ekainaren 21ean Bulego taldea arituko da, Nafarroatik etorriko den Lilo taldearekin batera, eta ekainaren 22an La Pegatina Kataluniako talde ezagunaren txanda izango da. Bi kontzertuak Untzagan izango dira, doan eta, aurreko urteetan bezala, jende asko erakartzea espero dutela adierazi dute. Bestalde, bi kontzertu horiek aurtengo Sanjuanetako musika-eskaintza nagusia osatzen badute ere, "jaietako musika-programazioan beste emanaldi batzuk" izango direla iragarri dute. Besteak beste, hilabete hauetan sare sozialen bidez idatzi dieten gazteek eskatutakoari erantzunez, bi DJ-ren emanaldiak ere egongo dira. Esan dutenez, Bulego eta La Pegatina Eibarren egoteak "ahalegin ekonomiko handia eskatzen du, baina seguru gaude merezi duela, eta espero dugu Eibarko eta beste herri batzuetako jendea etortzea".

Barixakuan egingo den kantu-afarirako txartelak salgai daude

Korrika kulturalaren baitan, datorren barixakuan (martxoak 15), kantu-afaria egingo da Arrate Kultur Elkartean. Afaria 21:00etan hasiko da eta joan nahi dutenek Kultu tabernan erosi dezakete txartela (15 eurotan bazkideek eta 20 eurotan beste guztiek).



Hasi da danborradetan parte hartzeko izen-ematea

Antolatzaileek jakinarazi dutenez, Sanjuanetako danborradan parte hartzeko izen-ematea zabalik dago, haur eta helduentzat (Eibarko Udalaren webgunean eskuragarri ipini duten formularioa beteta). Lehen entsegua apirilaren 24an izango da, betiko tokian (Udalak Bittor Sarasketa kalean duen lokalean). Entseguak eguaztenetan izango dira, 19:00etatik 20:00etara umeena eta, jarraian, 20:00etatik 21:00etara helduena.



250 zuhaitz landatuta hasi da Korrika kulturala

Korrika kulturalerako egitarauaren baitan, zuhaitz-landaketa egin zuten domekan, Soraluzen, Akilar ondoko lursailean. Eguraldi kaskarrari aurre eginez, 30 lagun inguru bildu ziren bertan, auzolanean 250 zuhaitz landatzeko. Ekimena eskualdeko AEK euskaltegiek (Eibar, Elgoibar eta Soraluze) antolatu zuten, Soraluzeke Baso Biziak elkartearekin elkarlanean, eta Soraluzeke Udala eta Lurguia Fundazioaren babesarekin.



Uxue Alberdiren ‘Belarriko kilkerra’ Harixa Emotenen-en

Martitzenean, 19:15ean hasiko da *Idazlearekin harixa emoten* euskarazko irakurle taldearen saioa. Hilabete honetan Uxue Alberdi idazle eta bertsolari elgoibartarra zango da bertan, *Belarriko kilkerra* liburuari buruz berba egiteko. Parte-hartzaileek liburuari buruzko galderak edo iruzkinak egiteko aukera izango dute. Betiko moduan, Ainhoa Aldazabalek zuzenduko du saioa. Eibarko Udal Liburutegiak eta ...eta kitto! Euskara Elkarteak elkarlanean antolatutako jarduerak da honako hau.



“La Cenerentola” opera eskainiko dute bihar Coliseon

Madrilgo Teatro Realen 2021ean grabatutako operaz gozatu ahal izango da bihar, 19:15etik aurrera, Coliseo antzokiko 2 Aretoan. Gioachino Rossiniren “La Cenerentola” italieraz kantatuko dute, gaztelerazko azpitu-luekin, bertsio digital diferituan. Stefan Herheimek ekoiztutako lanak ia hiru orduko iraupena du (2 ordu eta 47 minutu) eta bertan printzesa bihurtzen den zerbitzariaren istorio magikoa kontatzen da, “benetako magia, izatez, ahotsean dagoen arren”.



Eguren Zuri lehiaketako argazki-erakusketa zabalik

Atzo zabaldu zuten Topalekuan XXVI. Eguren Zuri argazki-lehiaketara aurkeztutako lanen erakusketa, eta bertan banatu zituzten edizio honetako sariak ere. Arrate Kultur Elkarteak antolatutako lehiaketan, lehen saria Hèctor Abela Arbuéseke eraman du, *Harlequeens* lanarekin, bigarrena Fernando Solana Marquizek *Ne-kaezina* izenekoarekin, eta hirugarrena Pedro Arriola Arrizabalagak, *Flamenkoa* lanarekin. Saritutako argazkiak, lehiaketara aurkeztutako beste batzuekin batera, martxoaren 24ra arte egongo dira ikusgai.

Euskal kantu-saioak egingo dira Kulturean hamabostean behin

Euskal kanta tradizionalak abesteko saioak egiten hasi dira Arrate Kultur Elkarteak. Arduradunen berbetan, “doinu eta letrak ezagutu, ikasi eta abestuz gozatzeko, lagunarteko saioetan elkartuko gara, hamabostean behin, astelehenetan”. Saioak 19:00etan hasiko dira eta hurrengo martxoaren 18an izango da. Informazio gehiagorako, 638 284 912 telefono zenbakira deitu daiteke.

ZERTXOBAIT ERRAZAGOA

	5	7			8	3		
						4		8
		8			2			
5				9	7			2
	6		1		3			5
2			5	6				1
			3			2		
8		3						
		5	9			1	8	

C	R	I	9	4	6	5	Z	V
Z	9	5	1	7	2	8	6	8
P	6	2	5	8	9	2	1	
I	E	Z	P	9	5	0	8	Z
6	5	8	2	1	7	9	4	
Z	P	9	2	0	8	1	5	5
9	1	6	2	2	4	8	P	9
0	4	7	6	5	9	2	1	5
9	2	C	8	1	7	4	5	6

soluzioa

**S
U
D
O
K
U**

ZERTXOBAIT ZAILAGOA

				2			6	
1		3					9	2
		6	1					
		2		9			8	5
9			7	5				3
6	3			4		9		
					4	3		
4	8					7		9
	6			5				

soluzioa

0	P	Z	1	5	2	9	5	5
6	5	Z	2	5	9	1	8	7
0	1	E	7	8	0	2	5	
1	7	6	P	2	5	5	9	
5	2	9	5	1	7	8	7	
5	8	P	9	6	2	1	7	
P	0	0	0	1	9	4	2	
2	6	9	7	5	5	1		
4	9	1	5	5	7	8		



AURKITU 15 EZBERDINTASUNAK



Martxoak 8/14

BARIXAKUA 8

M8

18:30 Kartelak egiteko txokoa.

19:30 Manifestazio zaratatsua: "Gure bizitzekin negoziarik ez!". Matraka neska* gazte taldeak antolatuta. Untzaga.

ZAPATUA 9

M8

11:00/12:30 Zumbatoi Morea: "Norbera zaindu, elkar zaindu". Dinamizatzaileak: Neledantza eta ND21. Doan, nahi duten emakume guztientzat. Errebal Plaza.

EUSKOAPNEA

13:15 Euskadiko apnea txapelketa. Ipuruako igerilekua.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Bihar arte soilik" (Erre produkzioak / Bizkaia). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

DOMEKA 10

KORRIKA KULTURALA

10:30/12:30 Usartza Txistulari Banda. Herriko kaleetan.

M8

13:00/13:30 Dantza performancea eta mural kolektiboa: "Zer da zaintza?". Dinamizatzailea: Kaxa Mugimendu eta Sormen Gunea. Untzaga.

IPUIN MUSIKATUA

18:00 "Itsas (h)ondokoak", Nerea eta Marianorekin. Ipuruako merkatu plaza.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "N'importe quoi" (Leandre Clown, Bartzelona). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Hezkuntza Esparrua.

ASTELEHENA 11

M8

18:30 "Ama ta Asunak", June Baonza Pagaldaireren proiektuari buruzko dokumentala eta solasaldia. Andretxea.

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "Proyecto Helen Keller" (Chévere, A Coruña). 10 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

MARTITZENA 12

BERRIKETAN IKASI

10:30 Tertulia: "Nola ikusten dute gazteek etorkizuna?". Portalea.

AURKEZPENA

18:30 TEK Eibar komunitate energetikoari buruzko hitzaldi-informatiboa. Coliseo.

URTEKO BATZARRA

18:30 ...eta kitto! Euskara Elkartearen Urteko Batzar Nagusia (bigarren deialdia **19:00**etan). Elkartearen lokaletan (Urkizu, 11 solairuartea).

MENDITOUR

18:30 "Crying glacier" (14 min). "Udalatx, ura eta atxa" (37 min). "Everest invaders" (53 min). 5 euro. Coliseo.

LITERATURA

19:15/20:15 Idazlearekin Harixa Emoten: "Belarriko kilkerra", Uxue Alberdi-ekin. Dinamizatzailea: Ainhoa Aldazabal. Portalea (1. batzartokia).

EGUAZTENA 13

M8

18:30 "Ez dadin bizitza eten" liburuaren aurkezpena, Miren Aranguren Etxarteren eskutik. Andretxea.

MENDITOUR

18:30 "Zerbait aldatu da" (10 min). "La ligne de l'Ange" (42 min). "Captains on el cap" (54 min). 5 euro. Coliseo.

EGUENA 14

HITZALDIA

10:00/12:00 "Jugando con las palabras: etimología", Miguel Arroitauregiren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskola (aretoa).

AURKEZPENA

12:00 TEK Eibar komunitate energetikoari buruzko hitzaldi-informatiboa. Errebal Plaza (aretoa).

AURKEZPENA

18:00 Zaporeak Debabarreneko erronka solidarioaren aurkezpena. Udaletxea (pleno aretoa).

XLVII. ANTZERKI JARDUNALDIAK

19:00 "El viaje del monstruo fiero" (El Brujo - Compañía Nacional de Teatro Clásico, Madril). 12 euro (8,5 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo.

KORRIKA KULTURALA

19:30 "Ttipi-ttapa" umorezko bakarrizketa, Pituxa Klownekin. Zaizoi taberna.

ERAKUSKETAK

Martxoaren 24ra arte:

- **EGUEN ZURI** argazki lehiaketako argazkiak. (Topaleku).
- "**QUO VADIS, EUROPA**", Leire Kareagaren artelanak. (Portalea).
- "**ZURE BARATZEAN HAZTEN DEN GUZTIA**", Andrea Alvarezen artelanak. (Portalea).

Martxoaren 12tik

apirilaren 16ra:
- "**AMA TA ASUNAK**", June Baonza Pagaldaireren proiektua. (Andretxea).

Eskualdeko Agenda

ERMUA

8an (BARIXAKUA) KONTZERTUA
20:30 / Ermua Antzokia
Marlena taldea

9an (ZAPATUA)

X. SAGARDO EGUNA
12:30/14:30 Txotx!
17:30/19:30 Txotx!
19:30 Karropotea
22:00 Kontzertuak
KONTZERTUA
20:00 / Lobiano Kulturgune
The Reverend Shaw Amos & The Brotherhoods

DEBA

9an (ZAPATUA)
MAGIA IKUSKIZUNA
20:00 / Kultur Elkartea
Niala Magoa

ZINEA COLISEO

1 ARETOA

- **9an:** 17:00, 19:45, 22:30
- **10ean:** 17:00, 20:00
- **11n:** 19:30

“Dream Scenario”
KOMEDIA



2023/AEB/96'
Zuzendaria: Kristoffer Borgli
Aktoreak: Nicolas Cage, Michael Cera, Julianne Nicholson
Dramatikoa/Surrealismoa

2 ARETOA

- **9an:** 22:30
- **10an:** 20:00

“Dune: Parte Dos”
DRAMA



2024/AEB/166'
Zuzendaria: Denis Villeneuve
Aktoreak: Timothée Chalamet, Zendaya, Rebecca Ferguson
Zientzia-fikzioa/Sekuela

ANTZOKIA

- **9an:** 22:30
- **10ean:** 17:00 (2 Aretoa), 20:00
- **11n:** 19:30

“La sociedad de la nieve”
DRAMA



2023/Espainia/144'
Zuzendaria: J.A. Bayona
Aktoreak: Enzo Vogrincic, Agustin Pardella, Matias Recalt
Biziraupena/Gertatutakoa

ANTZOKIA

- **9an:** 17:00 (2 Aretoa)
- **10ean:** 17:00

“Boonie Bears”
ANIMAZIOZKOA



2022/Txina/97'
Zuzendaria: Huida Lin
Komedia/Sekuela
Familian ikustekoa

Felisa Bolinaga Askasibar



1. URTEURRENA
2023/03/06

“AMAMA:
asko botatzen
zaittugu faltan.
Domeka honetan
marianito batekin
GOGORATUKO ZAITTUGU”

MAITE ZAITTUGU
- ETXEKOAK -

4. URTEURRENA
2020/03/07

“Geurian egunero, CLARITA”

MAITE ZAITUGU
ETXEKOAK
eta
LAGUNAK



943 20 67 76

publizitatea@etakitto.eus



Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da **...eta kitto!**-n. Zorion-agurrak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratzeko aukera daukatzue.



Zorionak, **IARE!!** 9 urte honezkerok! Askok disfrutau zure egunian! Musu erraldoi bat. Askok maite zaittugu!



Zorionak, **NORA!** Bixar 7 urte beteko dozuz-eta. Askok maite zaittugu, printzesa. Musu potoluak famelixaren partez.



Zorionak, **NORA,** hillaren Sian urtiak egin zenduazena-eta. Aitta, ama eta famelixak guztiaren partez.



Zorionak, **MALEN** Gisasola! Gaur 8 urte egin dozuz-eta. Patxo haundi bat famelixak guztiaren partez.



Zorionak, **IBAI.** Gaur 6 urte beteko dozuz-eta, mutil haundi! Musu erraldoi pilla bat famelixaren eta, batez be, Uxueren partez!



Zorionak, **IGOTZ.** Hillaren Sian 11 urte bete zenduazena-eta. Aitta, ama eta famelixak guztiaren partez.



Zorionak eta urte on askotarako, **AMAMA.** Mundiala zara! Musu haundi bat etxeko danon eta, bereziki, zure billoba Ander, Jon, Luken eta Liberen partez.



Zorionak, **ANDER.** Martitzenian 7 urte bete zenduazena-eta. Musu haundi bat famelixak guztiaren partez.



Zorionak, **IBAN.** Astelehenian 9 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, **ELIANA,** bixar urtiak beteko dozuz-eta. Musu haundi bat, eta oso ondo pasa etxekuekin.

FUNEUSKADI
Grupo Asentia

TANATORIO EIBAR

FUNERARIA MUGICA
Funerariak

TANATORIO CREAMATORIO ELGOIBAR

24 orduko zerbitzu iraunkorra T. 943 201 951
www.funeuskadi.com

Eibar: Otaola, 27	Elgoibar: Xixillon, s/n. SIGMA Industrialdea (Olasoko hilerriaren ondoan)
Eibarko bulegoa: Bidebarrieta, 20	Ermuako bulegoa: Marqués de Valdespina, 16

Eibar · Elgoibar · Ermua · Bilbo · Barakaldo · Leioa · Getxo · Sestao
Portugalete · Santurtzi · Basauri · Galdakao



argazkilaritza fotografia

646114443 · kili_klik

kilimaksortzen@gmail.com · Indalecio Ojanguren 1

ek!

Zure publikitatea
herriko aldiarian

688 621 535

publizitatea@etakitto.eus

Iragarki laburrak

943 20 67 76
publizitatea@etakitto.eus

Atal honetako iragarkiak doan dira, etheen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK, beti ere 4 ASTERAKO, honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak etakitto.eus webgunean ere argitaratuko dira.

1. ETXEBIZITZA

- 1.1. Salgai
- 1.2. Errentan
- 1.3. Konpartitzeko
- 1.4. Etxe trukaketa

2. MOTORRA

- 2.1. Salgai

3. LOKALAK

- 3.1. Salgai
- 3.2. Errentan

4. LANA

- 4.1. Lan bila
- 4.2. Langile bila

5. IRAKASKUNTZA

- 5.1. Eskeraek
- 5.2. Eskaintzak

6. DENETARIK

- 6.1. Salgai
- 6.2. Eman
- 6.3. Galdu/Aurkitu
- 6.4. Bestelakoak

1. ETXEBIZITZA**1.1. Salgai**

- Errioxan, Bañareseko kanporean, mobilhome salgai (9,20x3,70 m). Itxitako portxe handia (10x3,50 m) eta 30 m karratuko lorategiarekin. 637587811.

1.2. Errentan

- Deban etxebizitza alokagai, aldi baterako: hilabeteka, asteka. Eguzkitsua, 3 logela, 2 balkoi eta igogailua zero kotatik. Guztiz jantzita. 657795876 (arratsaldez).

3. LOKALAK**3.1. Salgai**

- Lokala salgai (102 m2) Legarreko dorrean, egokia komertziorako edo garaje bezala erabiltzeko. 626719802 eta 659504114.

4. LANA**4.1. Lan bila**

- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta tabernan lan egiteko. Esperientzia. 632716763.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 631959843.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. Esperientzia nagusiak zaintzen. 631759107.

- Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta pegorak garbitzeko. 679912841.
- Irakasle ikasketak egiten diharduen neska eskaintzen da umeak zaintzeko. Esperientzia. 629360924. Naiara.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko (ziurtagiriarekin). Esperientzia. 642577823.
- Emakume euskalduna eskaintzen da arratsaldez nagusiak edo umeak zaintzeko. 634651895. Anabel.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta nagusiak edo umeak zaintzeko. 686520473.
- Emakumea eskaintzen da garbiketarako egiteko eta umeak zaintzeko. 673764776.
- Emakumea eskaintzen da lan egiteko. Esperientzia handia sukaldari, zaintzaile eta garbitzaile bezala. 641196232.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko Eibar eta inguruan. 613287661.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanetarako. 641417815.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko (habilitazioarekin). Esperientzia. 604120104.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketarako (etxeak, bulegoak). 604392529.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. Baita asteburuetan ere. 642084800.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketarako egiteko. 613395684.

4.2. Langile bila

- Saltzailea behar dugu igandetarako. Lanaldi edo jornada zaititua. Bidali curriculum: acitain@gmail.com

5. IRAKASKUNTZA**5.2. Eskaintzak**

- LH, DBH eta Batxilergoko klase partikularrak ematen dira. 678937827 eta 943584166. Patrizia.
- Matematika, Fisika eta Kimika klase partikularrak ematen dira LH, DBH, Batxilergo eta Selektibitate prestatzeko. Gehienez lau laguneko taldeak. Urteetako esperientzia. 615705945. Iratxe.
- DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika... klaseak ematen dira. Banakako edo 2-3 ikasleko klaseak. Goizez ikasteko aukera. 677592509. Alberto.

6. DENETARIK**6.1. Salgai**

- Kanping-denda kanadiarra salgai. 4 lagunentzako. 30 euro. Ia berria. 943701013 / 659538158. Iñaki.
- Binilozko diskoak, singleak eta LP-ak erosten ditut. 688624326.



osasun gida

Medikuntza Estetikoak



abontza
clínica estética

Medikuntza
- Dermatologia estetikoak
- Aurrepegi gasetetzea
- Beritzeak

Kirurgia
- Betazelak, belarniak...
- Liposukzioak
- Kirurgia intimoa

Egiguren, 6 - behea 943 206 044

ANE VESGA
CLÍNICA MEDICINA
ESTÉTICA

Mediku Estetikoak
Kirurgia Orokorra
eta Digestio-Aparatukoak

Arragueta 2bis B, Entrepilanta A
623 003 251 info@draanevesga.com
WWW.DRAANEVESGA.COM



Okulistak



Recalde
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika

• Kataraten eta
presbiziaren
kirurgian espezialistak.

R.P.S. 254/13



Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

Podologoak



**ELENA
AIZPUN
PODOLOGOA**
838200124
kolegiatu zenbakia

T. Etxebarria, 5 - 1. A
943 12 14 93 / 696 555 208



BIDEBARRIETA, 48
EIBAR
943 203050

ERDIKO KALE 54
ARRASATE
943 799746

PODOLOGOA
Erdiko klinika

Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)



PODOLOGOA

Maidier
Lopez
Etxebarria

Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tñoa. 943 82 04 88

65 Kolegiatu zbkia.

Psikologoak

PSIKOLOGIA PSIKOTERAPIA

HAUR, NERABE ETA HELDUENAKO
ARRETA PSIKOLOGIKOA

GONZALEZ DE MENDIBIL
www.gonzalezdemendibilpsicologia.com
Toribio Etxebarria, 5, 1-C 623 45 31 95

Psikologia klinika eta
Psikoterapia zentroa

Oscar Mondragon Lili
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ

Urkizu, 13 - behea
Tel. 943206823 / 686859023



PSIKOTERAPIA ZENTRUA

HAUR, NERABE ETA
HELDUENTZAKO
PSIKOTERAPIA

943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B, 1º 3 atea
www.arratepsicoterapia.com



943-206776



zarelakopara

Egin zaitez bazkide!

eta kitto!
euskara elkartea